



DIPUTATU NAGUSIAREN KABINETEA

JARDUERA NAGUSIAK

«Gipuzkoa 2005 Plana
 Pasaialdea biziberritzeko plana
 Gipuzkoa, jakintza gune
 Euskal Eurohiria

«GIPUZKOA 2005 PLANA:
 GIPUZKOA INFORMAZIOAREN GIZARTEAN

2002ko martxoaren 26an, Diputatuen Kontseiluak «Gipuzkoa 2005 Plana onartu zuen. Egitasmo hori «Gipuzkoa Behatokiaren baitan sustatutako hausnarketaren eta foru departamentuetan eta «Administrazioa eta «Gizartea batzordeetan egindako lanen ondorio da.

Planaren helburu nagusia da “Gipuzkoa Europako lurralde aurreratu egitea Informazioaren Gizartearen garapenean eta horren onurak pertsona guztientzat izatea bermatzea. Hau da, Europako herrialderik aurreratuenean Informazioaren Gizartean duten txertatze mailara iristeko aurrerabideak egitea Gipuzkoan ere”. Hori guztia, garapen ekonomikoari gure lurraldeko gizarte-kohesioan ere aurrera egitea ahalbidetuko duten ekintzek lagundu behar diotela ahaztu gabe.

Plana sei jardun-ildotan egituratzen da:

- 1.- Telekomunikazio zerbitzurik aurreratuenetarako abiadura handiko atzipena.
- 2.- Herritarrentzako trebakuntza digitala.
- 3.- Enpresen konexioa eta merkataritza digitala garatzea.
- 4.- Zerbitzu publikoak sarean.
- 5.- Bere baitan pertsona guztiak hartzen dituen gizartea lortzea.
- 6.- Kalitatekoak diren trebakuntzarako eduki digital propioak sortzea.

Ildo nagusi horiek 47 ekintzatan zehazten dira eta horiek abian jartzeko eta garatzeko 63 milioi euro inbertituko dira, lau urtetarako.

2002ko apirilaren 25ean, Miramon Teknologia Elkartegian izan zen ekitaldi batean, aurkeztu zen ofizialki Plana. Ekitaldira ekonomia, enpresa, instituzio, elkarte, kultura, unibertsitate eta beste alor anitzetako ordezkariak bildu ziren.

2002 urtearen amaiera aldean, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkari bat Europako Batzordeko arduradunekin, Informazioaren Gizarteko Zuzendaritza Orokorrekoekin eta Eskualdeetako Zuzendaritza Orokorrekoekin, elkarrizketatu zen Bruselan Plana aurkezteko eta «Europa ekimenarekiko loturan sakontzeko. Europako Batasuneko arduradunek, jarduketa mota horiek eskualde mailan duten garrantzia azpimarratu zuten eta “praktika on” gisa kalifikatu zuten.

Ildo horretan sakontzearen, Eusko Jaurilaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Euskadi Informazioaren Gizartean Plana eta «Gipuzkoa 2005 Planaren arteko koordinazioarako hitzarmena sinatu zuten orain dela gutxi. Hitzarmen horren eremuan, Eusko Jaurilaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuen arteko lan-talde ezberdinak eratu dira, aipatutako planetako helburuak lortzeko ekintzak koordinatzeko xedearekin. Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euskadiko telekomunikazio azpiegituren Erakunde arteko Batzordean parte hartzen du, Gipuzkoako udalerrri guztietan banda zabala jartzeko helburuarekin.

«Gipuzkoa Behatokiak eta Foru Aldundiko beste departamentuek hainbat ekintza zehatz jarri dituzte abian Planaren jardun-ildoak hurrengo lau urteko aldi gorpuztu ahal izateko. Foru Aldundiko zerbitzuak ari dira, bakoitza bere alorrean, ekintza horiek garatzen. Era berean, abenduan idatzi eta argitaratu da *Gipuzkoak Informazio Gizarteari dagokionez 2002an zuen egoerari buruzko txostena*.

Informazioaren Gizartea Gipuzkoan sustatzeko erabilgarritasun handiko beste baliabide bat da bere web orria, www.egipuzkoa.net, hileroko eguneratzen dena. Bertan, Gipuzkoan gauzatzen ari diren proiektu eta jardunei buruzko informazioa, nahiz foru eta udal administrazioak bultzatuak nahiz bestelako agenteek eta sektore ekonomikoek sustatutakoak, «Gipuzkoa Behatokiaren hausnarketa estrategikoak, egiten ari diren urratsak egiaztatzeko estatistikako datu baliagarriak, diru laguntzei buruzko informazioak,... Azken buruan, Gipuzkoak Informazioaren Gizartean duen estrategia globala osatzen duten ekimenak sustatu eta laguntzeko baliagarri izan daitekeen informazio oro.

Udalerrri digitala izenburupean, eta Miramonen jardunaldi bana egin ondoren, Udalekin baterako lanak jarraitzen du, udalerrri eremuan telekomunikazio azpiegituren hedakuntza planifikatzeko garapen, jarraibide eta irizpide metodologikoak errazteko.

2003 urtean zehar, *eGipuzkoa 2005 Planean* garatutako eduki eta proposamenetan sakontzeko jardunaldi eta hitzaldiak antolatuko dira.

JARDUERAK PASAIALDEAN

Gipuzkoako Foru Aldundiak, azken urteetako aurrekontuetan, 22,4 milioi euro baino gehiago (3.730.000.000 pezeta) xedatu ditu Pasaialdea biziberritzeko jarduera desberdinetarako. Biziberritze hori gauzatzea zaila izan da batzuetan, sortu diren arazoek konplexutasunagatik eta eskualdean eskudunak diren erakunde desberdinak koordinatzeko zailtasunagatik.

Une honetan kontu sail guztiak hitzartuta daudela esan daiteke, eta abiarazi diren jarduera ildoak honela laburbil genitzake:

Biziberritze ekonomikoa

Oiartzunen Lanbarren eta Lintzirin poligonoak hiritartzeko lanak hasi dira, eta berehala ekingo zaie Erretereriako Egiburukoei.

2002an, bestalde, inbertsiorako laguntzak, erakunde arteko hitzarmenean jasotakoak, eman zaizkie 18 milioi euro inguru inbertitu eta 100 bat lanpostu sortu dituzten enpresei.

Hirigintzako biziberritzea

Berehala amaituko dira Pasai Antxoko azokako birgaitze-lanak, udalarekin sinatutako hitzarmenean jasotzen ziren denetan azken lanak direnak.

Molinaon zeuden jarduera ekonomikoko guztiei beste kokaleku bat eman ondoren, zonaldean desjabetutako lehenengo pabilioiak bota dira, eta 2003 urtean zehar gainontzekoak bota eta alor hori espazio publikoetarako berreskuratzeari ekin ahal izatea espero da.

Behin Luzuriaga zonaldean geratzen den azkeneko enpresa eraitsita, etxebizitzak eraikitzeari eta alor hori hiritartzeari ekingo zaio.

Pasaiaiko portua

Oarsoaldeko Industrialdea S.A. enpresarekin hitzarmenak sinatu dituzte Foru Aldundiak eta Eusko Jaurilaritzak, eta horien bidez, bakoitzak 6 milioi euroekin finantzatuko du Donibaneko Nabaldea poligonoaren eraikuntza. Poligono horrek, portuan dagoen itsasontzien konponketa eta eraikuntza industria guztia antolatzeaz gain, Herreraren birmoldaketa erraztuko du. Proiektua idazketa fasean dago eta 2003ko uda baino lehenago hasiko dira lanak.

Era berean, eta bigarren urtez jarraian, Eusko Jaurilaritzarekin sinatutako hitzarmenaren eremuan, arrantza flotaren modernizaziorako diru laguntzak eman dira.

Arrain saltokiak birmoldatzeko lehenik abian zeuden jarduerak bultzada garrantzitsua izan dute 2002an, eta birmoldaketa hori 2003an hasiko da baita ere, arrantza kofradiak eta merkaturatze sektoreak saltokia kudeatuko duen sozietatea eratu ondoren.

GIPUZKOA, JAKINTZA GUNE

Gipuzkoa, jakintza gune gisa sustatzeko jardueren alorrean, Gipuzkoako Foru Aldundia ekimen garrantzitsu batzuk bultzatzen ari da Euskal Herriko Unibertsitatearekin, Mondragon Unibertsitatearekin (Garaia proiektua) eta CEIT eta Nafarroako Unibertsitatearen Donostiako sailarekin batera; Mondragon eta Nafarroako unibertsitateekin lantzen ari den bi proiektuak, gainera, Ekonomia eta Turismo Foru Departamentuarekin batera kudeatzen dira.

EHUren kasuan, eta Ibaetako Campuseko bigarren faserako sinatutako hitzarmenaren garapen bezala, Foru Aldundiak I+G+B eta Ikerketarako Unibertsitate Institutuen Gunea eraikitzea finantzatzen du. Egun, eta beharren programa zehaztu ondoren, Errektoreordetzak proiektu arkitektonikorako lehiaketa ebatzi du jadanik eta proiektua idaztea agindu du. 2002 urte erabakitzailea izan da Gipuzkoarako hain garrantzitsua den ikerlagune hori eraikitzen hasteko.

CEIT eta Nafarroako Unibertsitateari dagokionez, Miramongo Teknologia Elkartegian egin nahi den eraikin berria, Aldundiak partzialki subentzionatzen duena, eraikuntza fasean dago jadanik.

Mondragon Unibertsitateak, teknologia eta jakintza gune bat sortzeko sustatu duen Garaia Proiektua ere finkatze fasean dago, Mondragon Unibertsitateko 2000-2008 Plan Estrategikoan jasotzen diren azpiegitura lanak bezalaxe.

Donostia International Physics Center

2002 urtean Gipuzkoako Foru Aldundiak Fundazioan zuen partaidetza bikoiztu egin du; beraz urteko ekarpen finantzarioa ere bikoiztu du. Horrela, Fundazioak oinarritzko fisikaren eta fisika aplikatuaren arloetan egiten dituen ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jarduerak, nazioarteko erreferenteak direnak, sustatzen ditu.

Fellows Gipuzkoa programa

2002 urtean, hirugarren urtez, aplikatu da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostia International Physics Center Fundazioaren arteko hitzarmena. Hitzarmen horren arabera Foru Aldundia egiten da *Fellow Gipuzkoa Programaren* finantzaketa osoaren kargu. Programa horren bidez, Fundazioak konpromiso hau hartzen du: urtero ikerlari postu berri bat sortuko du ikerketa-ildoengatik eta ekarpen zientifikoengatik nazioartean nabarmentzen diren Euskal Herriko ikerlarientzako, gure herrialdeko goi-ikertalderen batean jardun dezaten.

Azkenik, eta Aldundiak gure lurraldeko ondare artistiko eta juridikoaren jakintza lantzeko eta sustatzeko duen interesaren erakusle, Euskal Herriko Zuzenbide Historikoko Institutuarekin sinatutako hitzarmenari eutsi zaio. Institutua aurrera doa une hauetan, euskal zibilizazio juridikoaren liburutegi birtuala eratzeko planean eta, orobat, zuzenbide historikoari buruzko mintegi, ikerketa eta argitalpenak antolatzen.

“BAIONA-DONOSTIA EUSKAL EUROHIRIA” MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZA PROIEKTUA

Eurohiria Garatzeko Mugaz Gaindiko Agentziak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Baiona-Angelu-Biarritz Aglomerazio Erkidegoak mugaz gaindiko dinamika koordinatzeko eta sustatzeko erabili duten organo instrumentalak, Agentzian diren erakunde ordezkaritza handitzeko lanean jarraitzen du. Hortaz, jadanik agentziako kide diren Bidasoa-Txingudi Mankomunitateaz eta Irun, Hondarribia eta Hendaiaiko udalez gainera, erakunde gehiago ere partaide egiteko harremanak kudeatzen ari da.

Eremu honetan ondorengo jarduketak nabarmentzen dira:

– *Garraioaren azpiegiturei buruzko etorkizuneko azterketa*, bidaiariaren garraioa, merkantziak eta azpiegiturak azpimarratuz.

– *Eremu mugakidean hondakinen tratamendu globalari buruzko azterketa*.

– *Hizkuntzei buruz hausnartzeko mintegia*. Eurohiriak, Euskal Herriko eta Pabeeta Aturrialdeko unibertsitateekin batera, eta bi herrialdeetako Hezkuntza eta Kultura agintariek, Eurohiriko hizkuntzen ezagutza aplikatua sustatzeko dauden aukerei buruz hausnartzeko mintegi bat antolatu zuten.

– Izaera sektorialagoa duten beste jarduketa mota batzuk ere azaldu behar dira, azterketa eta eztabaidak adibidez: *Etxebizitzaren eta Habitaten Mugaz Gaindiko Behatokia*, Udako Unibertsitateko ikas-taro berri bat, *Hirien marketinga garapen metropolitarraren estrategia bezala, mugikortasunaren azterketaren emaitzak* eta abar.

— BESTE JARDUKETAK

– *Aquariuma*. Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarte ozeanografikoarekin hitzarmen bat sinatu du eta horren bidez Aldundiak 601.000 euro emango ditu instalazioak birgaitzeko eta modernizatzeko. Diru laguntza hori aurreko urtetan Aquariumeko lanetarako eman diren 611.113 euroetara (110 milioi pezeta) gehitzen da. Beraz, Aldundiak Aquariumeko lanak gauzatzeko egin duen ekarpena, guztira, 2002an hitzartutako laguntza kontuan hartuz, 1.262.113 eurokoa da (210 milioi pezeta).

– *Joaquín Elosegui sari juridikoa*. Aurreko urtean zehar Joaquín Elosegui sari juridikorako bigarren deialdia egin da, lehenengo edizioan saria eman gabe geratu ondoren. Hiru lan aurkeztu dira. Saria 2003an erabakiko da.